






EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERAGINA DATUEN AURRERAPENA (EAE, 2020)

Dokumentu honetan, Azterlan eta Analisisen Dibisioak eta Ertzaintzak (Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila) emakumeen aurkako indarkeriari buruz emandako datu nagusien aurrerapena jasotzen da. Datu horietan, EAEko poliziak 2020an ofizialki erregistratu zituen emakumeen kopurua eta emakumeen aurkako indarkeria-kasuak adierazten dira.

Datu horien arabera, 2020an **4.177 emakume izan ziren indarkeriaren biktima**. Guztira, 2.892 emakumek (%69,2) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoak jasan zituen; 947 emakume (%22,7) euren familiako beste gizon batek eragindako indarkeriaren biktima izan ziren, eta 338k (%8,1) familiatik kanpoko sexu-indarkeria jasan dute.

Kontuan izan behar da emakume batzuek behin baino gehiagotan jasaten dituztela erasoak urte berean. Zehazki, 2020an **5.276 biktimizazio** edo indarkeria-kasu zenbatu ziren.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK ETA BIKTIMIZAZIOAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA. Absolutuak eta %. EAE, 2020

2020	5.276 indarkeria- kasuak	4.177 emakume
 Bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria	3.814 kasu %72,3	2.892 emakume %69,2
 Familia barruko indarkeria	1.115 kasu %21,1	947 emakume %22,7
 Sexu-indarkeria	347 kasu %6,6	338 emakume %8,1

Datuek erakusten dute **indarkeriaren biktima izan diren emakumeen kopuruak eta biktimizazioek behera egin dutela** 2019ko datuekin alderatuta. Zehazki, %5,48 jaitsi da biktima izan diren emakumeen kopurua: 2019an 4.419 izan ziren, eta urtebete geroago, 4.177. Biktimizazioei dagokienez, jaitsiera %4,39koa izan da, 2019an 5.518 izatetik 2020an 5.276 izatera igaro baita.





Indarkeriari buruzko datuen beherakada orokor hori, bereziki, **bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan eta sexu-askatasunaren eremuan gertatutako indarkeria-kasuen beherakada nabarmenaren** ondorio da. Hala ere, **familia barruan eragindako indarkeria-kasuek hazkunde handia** izan dute aldi horretan, bai emakume biktimen kopuruari dagokionez (+%5,34), bai biktimizazioen kopuruari dagokionez (+%10,62).


Zalantzarik gabe, **datuok** neurri handi batean **baldintzatuta daude COVID-19k eragindako osasun-krisiagatik** eta etxeko konfinamendua bezalako salbuespenezko neurriak hartzeagatik. Zentzu horretan, badirudi **konfinamenduak oztopatu egin duela bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan indarkeria-kasu asko argitara ateratzea** (%6,66 jaitsi dira). Gainera, biztanleriari ezarritako **mugimendu-mugek ere eragina izan dezakete familiatik kanpoko sexu-indarkeriako kasuen jaitsieran** (%18,16 gutxiago). Aitzitik, **badirudi itxialdiak familia barruko indarkeria kasuen alde egin duela** (%10.62 igo dira).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK ETA BIKTIMIZAZIOAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA.
%, EAE, 2019 eta 2020

	INDARKERIA-KASUAK			EMAKUME BIKTIMAK		
	2019	2020	Aldakuntza	2019	2020	Aldakuntza
Bikotea/Bikote ohia	4.086	3.824	-6,66	3.098	2.892	-6,65
Familia barrukoa	1.008	1.115	10,62	899	947	5,34
Sexu-askatasuna	424	347	-18,16	422	338	-19,91
Guztira	5.518	5.276	-4,39	4.419	4.177	-5,48

Hilabetez hilabete datuak aztertuz gero, martxotik apirilera bitartean hiru indarkeria-motek beherakada nabarmena izan dutela ikus daiteke (konfinamendu gogorrenari buruzkoak); maiatzetik aurrera, berriz, joera-aldaketa izan da, hilabete horretan indarkeria-mota guztietan erregistratutako kasuak nabarmen ugaitu baitira.


EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA, HILABETEZ HILABETE.
Absolutuak. EAE, 2020





Lurraldeka aztertuta, datuek adierazten dute **biktima diren emakumeen %55,3 (2.311) Bizkaian bizi dela, %29,6 (1.238) Gipuzkoan, eta %15 (628) Araban**. 2019. urtearekin alderatuta, hiru lurralde historikoetan biktima izan diren emakumeen kopuruak behera egin du, baina Arabak izan du beherakadarik handiena (-%10,80), ondoren Gipuzkoak (-%7,82) eta azkenik, Bizkaia (-%2,57).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. Absolutuak eta %. EAE, 2020



Emakumeen adinari erreparatuta, **biktimen ia erdiak (%47,74) 31 eta 50 urte bitartekoak dira eta %24,85, 18 eta 30 urte bitartekoak**. Gainera, **biktima guztien %10,87 adingabeak dira, eta %16,33, 50 urtetik gorako emakumeak**.

Datuek berriro erakusten dute nolabaiteko **lotura dagoela emakumeen adinaren eta jasaten duten indarkeria motaren artean**. Hala, bikotekideen edo bikotekide ohien biktima diren emakumeen %59,3k, 31 eta 50 urte artean ditu, eta %86,76k, 18 eta 50 urte artean. Bestalde, ohikoagoa da familia barruko indarkeria jasaten duten emakumeak 50 urtetik gorakoak (%37,06) edo adingabeak (%27,56) izatea. Bestalde, emakume gazteenak dira familiatik kanpo eragindako sexu-indarkeriaren biktima nagusiak: indarkeria mota horren biktimen %37,57 adingabeak dira, eta %71,6 30 urtetik beherako emakumeak.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK, ADINAREN ARABERA. EMAITZA OROKORRAK ETA ERASOTZAILE MOTAREN ARABERA. %. EAE, 2020

	Guztira	Bikote/Bikote ohia	Familia barrukoa	Sexu-askatasuna
18 urtetik beherakoa	10,87	2,28	27,56	37,57
18-30 urte bitartekoa	24,85	27,46	13,62	34,02
31-50 urte bitartekoa	47,74	59,30	21,44	22,49
50 urtetik gorakoa	16,33	10,89	37,06	4,73
Adin ezezaguna	0,22	2,03	0,32	1,18
Guztira	100	100	100	100

